

**El objetivo de las movilizaciones es que la Diputación Foral de Bizkaia cumpla el acuerdo que el año pasado ella misma firmó**

# PAROS EN BIZKAIBUS



En la imagen la manifestación que las y los trabajadores de Bizkaibus realizaron el 24 de septiembre en Bilbao.

Los sindicatos ELA, UGT, CCOO, USO y LAB han convocado diferentes paros y huelgas en octubre para exigir a la Diputación Foral de Bizkaia que cumpla el acuerdo que el año pasado ella misma firmó. El 4 de octubre del 2013 se firmó un acuerdo con la

Diputación que, entre otros aspectos, garantizaba una subrogación real de las plantillas de Bizkaibus, obligaba a mantener las condiciones de trabajo, imponía la ultraactividad e impedía la inaplicación de los convenios, o, lo que es lo mismo, se evitaba que en Bizkaibus entrara la reforma laboral. Además se marcaban las nuevas contrataciones y sus condiciones de trabajo, las cuales serían las mismas que las de las plantillas actuales.

Iñaki San Andrés, responsable de ELA en Bizkaibus, destaca que la Diputación está incumpliendo lo firmado hace ahora un año. "Los incumplimientos son constantes. No está asegurando el mantenimiento de líneas como la de Artxanda, perjudicando a los vecinos y vecinas, no dando un servicio de calidad y amortizando puestos de trabajo. También incumple el tema de las amortizaciones; a diferencia de lo acordado y firmado está amortizando puestos de trabajo. A día de hoy nos encontramos que la Diputación va a amortizar puestos de trabajo (más de 200), sigue adelante con su intención de destinar 12 millones de euros a la destrucción de empleo, lo cual es un ataque a la línea de flotación del acuerdo".

"Además, –añade San Andrés– es necesario denunciar que en la última reunión celebrada con los responsables forales, el 4 de septiembre, la Diputación diga que las empresas no tenían obligación de cumplir lo acordado el año pasado. Eso es engañar a los trabajadores y trabajadoras y a la ciudadanía en general. Es una vergüenza que una institución pública firme acuerdos que luego no va a obligar a cumplir. Es decir, ahora nos plantean que no está confirmado que las empresas vayan a respetar los acuerdos, con lo que las condiciones de trabajo, los convenios o las bolsas de trabajo que se habían acordado pueden no respetarse. Eso no lo vamos a permitir".

Ante este panorama, el responsable de ELA en Bizkaibus considera que no queda otro camino que la movilización. "El 24 de septiembre nos manifestamos en Bilbao, y el 1 de octubre lo volveremos a hacer. Bien, en caso de que la Diputación no cambie de actitud hemos convocado un paro de dos horas para el 3 de octubre. Si el conflicto sigue sin solucionarse, los días 6, 9, 13, 15, 17, 20, 21, 23 y 24 de octubre haremos huelga. Y, si pese a todo la Diputación sigue incumpliendo el acuerdo del 4 de octubre del 2013, convocaremos huelga indefinida a partir del 27 de octubre".

**ELA considera "sorprendente" que LAB descubra ahora a la patronal del metal**

## "HAY QUE HABLAR CLARO A LA CLASE TRABAJADORA"

LAB anunció el 24 de septiembre que abandona la mesas sectoriales del metal, argumentando que "son un teatro donde no hay negociación real". Ante la enésima rueda de prensa de LAB sobre las negociaciones sectoriales del metal, la Federación Industria eta Eraikuntza quiere señalar lo siguiente:

- LAB parece descubrir en septiembre del 2014 que la patronal quiere imponer la reforma laboral. Consideramos que esa conclusión llega con más de dos años de retraso, tiempo que LAB ha perdido para explicar a los y las trabajadoras el alcance de la ofensiva de la patronal.

- LAB concede, además, al Gobierno de Gasteiz una credibilidad que éste no tiene. El mismo Gobierno que pisotea el derecho a la negociación colectiva de los trabajadores y trabajadoras del sector público no puede suponer esperanza alguna para los y las trabajadoras del metal. La clase trabajadora de este país ya descubrió hace años que el Gobierno de Gasteiz se alinea con los intereses de la patronal. Que un sindicato fie su estrategia de negociación en el metal a la acción de este gobierno demuestra la inconsistencia de su estrategia.

- Consideramos muy grave que LAB

equipare a ELA con CCOO y UGT. Estos dos sindicatos están aportando su firma en los convenios sectoriales facilitando con ello la pérdida de derechos que está sufriendo la clase trabajadora. Nafarroa, con prácticamente todos los convenios sectoriales acordados, está a la cabeza de la pérdida salarial a nivel estatal. Además, CCOO y UGT están siendo sujetos activos a la hora de centralizar los convenios sectoriales.

- La reforma laboral de febrero de 2012 fue tan dura como clara. El gobierno ofrecía a la patronal una legislación a su medida. La opción de

LAB desde ese momento fue apostar por la no confrontación. Son innumerables los planteamientos realizados por este sindicato –acuerdos interprofesionales, acuerdos marco sectoriales, pactos blindados, acuerdos puente, convenios de transición etc.– para no explicar lo evidente: que es hora de luchar en las empresas.

- Es hora de hablar claro a la clase trabajadora. La patronal y los diferentes gobiernos cuentan con una legislación que solo será respondida con organización y lucha en las empresas. No se pueden descubrir las intenciones de la patronal en septiembre de 2014.

**[www.ela-sindikatu.eus](http://www.ela-sindikatu.eus) / @ELAsindikatu / ELA-Facebook**

**ELA**  **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**[www.ela-sindikatu.eus](http://www.ela-sindikatu.eus)**

**Franqueo concertado  
nº 08/207**

## EDITORIALA

### Trikimailuak

Lan harremanen esparruan, bizi-tzaren beste hainbat eremutan bezalaxe, aldaketa nabariak eman dira azken urteotan, eta espresuki azken krisialdi honen garaian aldaketa horiek beti langilearen kaltetan izan dira. Urteak dira administrazio gehienek eta enpresek ere bere kargu hartzen zituztela langileak, beren lantokietan egindako lanagatik zuzenean ordaintzen zitzaizkalarik. Harrezkero, helburu berdinarekin neurri ezberdinak hartu dituzte zuzeneko langileak ez izateko eta azpikontraten formula erabili dute nonahi.

Administrazio handia argaldu behar zelako, sektore publikoa behar bezala eskaintzen ez zuen zerbitzua ematen zuten azpikontratek, azkar eta arin eskainitako zerbitzua da beste enpresena... honelako sasi argudioak entzun ditugu makina aldiz. Atzean, ordea, ez dago horrelako helburu gar-denik. Herritarrei eskaini beharreko kalitatezko zerbitzua administrazioek, kostuak gutxitzeko, enpresa pribatuei esleitu die hainbat alditan zerbitzua garestiago suertatu dela frogatu bada ere. Jakina da ere enpresetako irabazien bitartekoa beti langileen soldata eskasagotik etorri dela. Milaka eta milaka dira egun administrazio publikoetarako lana egiten duten azpikontratatuko langileak.

Bilakaera hori ikusita, eta langileen lan baldintzak hobetzeko enpresa horietan eginko ekintza sindikalaz gain, ELAk antzemana zuen egoera hori orokorrean arautu behar zela eta abian jarri zuen Legegintzako Herri Ekimena. Gure militantziaren lan eskerga medio, 110.000 sinadura bildu genituen Legebiltzarrak legezko proposamena garatu zezan. Gobernuko lehen txostena aurkakoa izan zen. Hala ere, Legebiltzarrak ELAren proposamena onartu zuen EAJren aurkako botoarekin. Bere borondatea makurtu nahi ez eta orain, aginteke-riaz, Bizkaiko Aldundia darabil, akuilu gisa, legebiltzarrak onarturikoa garatu ez dadin.

Bizkaia aurkeztutako eskumen-arazoak ELAren ekimena geldiarazi du, makina langileen itxaropenak eta eskubideak zapuztuz. Legebiltzarraren borondatea saihesteko honelako triki-mailuak erabiltzeak erakusten du norainoko harrokeriaz eta aginteke-riaz gobernatzen gaituzten. Aurreneko kapitulua besterik ez da izan. Triki-mailuen gainetik erantzun beharrean gaude.

**Sábado 11 de octubre: 12:00. Manifestación desde el Sagrado Corazón de Bilbao**

# ARKEMA, EN HUELGA INDEFINIDA CONTRA EL CIERRE

El 9 de septiembre la multinacional francesa Arkema anunció el cierre de su planta de Zaramillo (Alonsotegi), lo que supone el despido de sus 59 trabajadores/as directos, y otros 20 indirectos, de subcontratas. El comité de empresa –5 delegados de ELA– lo tiene claro: no hay razón alguna que justifique el cierre y adelanta que lucharán hasta el final por el mantenimiento de los puestos de trabajo.

**-Tras el shock inicial, ¿qué respuesta habéis decidido dar a la decisión de la multinacional?**

-La lucha. No vamos a ser ejecutados sin pelear. Vamos a defender, hasta las últimas consecuencias, nuestros empleos, el futuro de nuestra familias y de Las Encartaciones. Y lo vamos a hacer en los tribunales, desde lo jurídico, y en las calles, con la presión social.

El jueves 25 de septiembre iniciamos una huelga indefinida durante la que vamos a salir a la calle, mucho y con ganas. El viernes 26 de septiembre hicimos la primera manifestación en Bilbao, a las 12:00 horas, desde el Sagrado Corazón hasta la Diputación, y vuelta.

El martes 30 de septiembre, una delegación del comité de empresa asistirá al Comité Europeo de Arkema en París, donde se denunciará el cierre y se exigirá el mantenimiento de la planta de Alonsotegi.

El 11 de octubre, a las 12:00 del mediodía, volveremos a Bilbao a manifestarnos.

Iremos tomando decisiones semana a semana y anunciando más movilizaciones, como concentraciones en todos los



En la imagen los miembros del comité de empresa de Arkema junto a más trabajadores de la empresa y responsables de la federación Industria eta Eraikuntza

Ayuntamientos del Kadagua, donde presentaremos mociones para que los plenos se posicionen en apoyo de los trabajadores y trabajadoras e insten a la empresa a mantener la actividad industrial.

Sigue en la página 2

**Iragan urteko arrakastaren ostean, Bizi! mugimenduak Alternatiba Zokoa antolatu du urriaren 5erako Ziburuko Zokoa auzoan**

## "ALTERNATIBA EHUNTZEN DOA"

Elgarrekin mundu hobe bat eraiki dezagun, erronka klimatikoari aurre eginez! Hori izango da Bizi! mugimenduak antolatuta Ziburuko Zokoa auzoan egingo den Alternatiba Zokoaren leloa. Iazko urrian Baionan antolatu zen Alternatiben Herrixka dinamikaren baitan sortutako ekimen honek hiru helburu nagusi ditu: dagoeneko abian diren alternatiba zehatzak ezagutzera ematea, gizakien eta bizi dugun ingurumenaren arteko elkar eraginen gaineko ezagutza zabaltzea eta festa berreskuratzea. Hain zuzen, hirugarren puntu hau oinarri hartuta, iaz Baionan

bizi izandako festa handia errepikatzea espero dute antolatzaileek –2013ko urriaren 6an 10.000 lagunetik gora bildu ziren Baionan Alternatiben Herrixkaren baitan antolatutako ekitaldietan–.

ELAk ere bat egin nahi du ekimena- rekin, bere laguntza eta sostengua emanaz. Gauzak honela sindikatuko hainbat ordezkari parte hartuko dute antolatu diren hitzaldi ezberdinetan.



Argazkian 2013an Baionan egin zen 'Alternatiben Herrixka' festa

2. orrialdean jarraitzen du

Lankidetu!





Iremos a Lakua, a las Juntas Generales, al Parlamento Vasco y a París, a la misma cabeza de la multinacional, si hiciese falta.

**-Aseguráis con rotundidad que no hay razones para este cierre y que la planta es viable.**

-Así es. Vamos a hacer frente a este Expediente de Regulación de Empleo por entender que no hay razones objetivas para el cierre. No existen causas económicas ni productivas en una empresa que ha repartido 200 millones de euros de dividendos en el 2012 y 2013 y que ha tenido unos beneficios de 380 millones de euros en ese mismo periodo.

Y tampoco es una excusa válida que aleguen como razón para un posible cierre la normativa medioambiental europea que debe cumplir Arkema. Con una pequeña inversión, totalmente factible con las cifras a las que nos hemos referido antes, la planta de Alonsotegi está perfectamente capacitada para seguir teniendo actividad en nuestra comarca con todas las de la ley y garantías medioambientales.

**-Además de mentir, acusáis a la multinacional de actuar con mala fe.**

-Así es. Arkema tiene cuatro centros de trabajo en el estado español. El ERE de extinción que han planteado afecta a Alonsotegi (59 trabajadores/as) y Madrid

(11). Sin embargo, sabemos que algunos de esos 11, al ser los responsables de Arkema en el estado español, no van a perder su empleo. Es decir, por el escaso número de trabajadores/as afectados podrían haber decidido no presentar el ERE de Madrid. Sin embargo creemos que lo han hecho para que no sean los tribunales laborales vascos sino la Audiencia Nacional y el Ministerio de Trabajo las autoridades competentes para resolverlo, llegado el caso.

Por otra parte, no podemos olvidar tampoco el hecho de que en enero de este año Arkema Química fusiona con Arkema Coatings los centros de Barcelona, garantizándose en todo momento que esa fusión no iba a tener ningún impacto sobre el empleo en el grupo. Que pocos meses después vengan con que hay que cerrar dos plantas...

Evidentemente son decisiones que no se toman de un día para otro, por lo que entendemos que han estado mintiendo durante todo este tiempo.

**-El vuestro es un caso de libro de una reforma laboral que deja a la clase trabajadora al albur de empresarios y multinacionales sin escrúpulos.**

-El sindicato lo denunció en su día y lo sigue haciendo: la reforma laboral es un arma letal que usan las empresas para despedir a la gente y condenar a la clase trabajadora.

Es una aberración social que una empresa de esta magnitud, que ha ganado dinero a espaldas, pueda cerrar su planta así como así y que la normativa española no le exija siquiera las cuentas del grupo porque no consolidan en el estado español. Es una invitación a las empresas multinacionales a deslocalizar sin problemas.

**-Hablemos de apoyos. El sindicato está con vosotros/as, la gente de la comarca está con vosotros/as. ¿Qué respuesta estáis teniendo de las instituciones?**

-Creemos que no hay lugar para las medias tintas. Las instituciones deben definir claramente, sin poses, de qué lado están: de las familias a las que se quiere condenar a la pobreza o de empresas sin escrúpulos.

Hasta ahora, la respuesta de las Administraciones ha sido diferente: las locales nos han recibido y ofrecido colaboración en la medida de sus posibilidades. La Diputación Foral de Bizkaia, por su parte, se ha ofrecido a trabajar y a exigir a la empresa el mantenimiento del empleo. Esperemos que nada de esto quede en una pose política.

Por contra, la Consejería de Industria del Gobierno Vasco ha tardado más de una semana en responder a la solicitud de reunión del comité de empresa, y cuando lo ha hecho ha sido para comunicarnos que ellos poco tienen que hacer y remitirnos al Departamento de Empleo.

No queremos entrar en polémicas estériles porque creemos que es importante que todos estemos del mismo bando de cara a conseguir el objetivo que nos hemos marcado, pero la Consejería de Industria debe reunirse con nosotros y poner encima de la mesa cuál es su política industrial, qué medidas va a poner en marcha para mantener los puestos de trabajo y el futuro industrial en una zona tan castigada como el Kadagua.

**-Al hilo de lo que comentáis, es destacable que estáis luchando contra el cierre de Arkema, pero lo englobáis dentro del futuro de la comarca.**

-La sensación que existe en la comarca es que El Kadagua se muere poco a poco, y parece que a nadie le importa. Arkema es el último caso de una empresa en peligro, pero no podemos olvidar el goteo de cierres de los últimos años...

En este sentido, queremos agradecer las muchas muestras de apoyo que estamos recibiendo de plantillas de otras empresas, y de vecinos y vecinas de la comarca. Y les animamos a seguir haciéndolo porque lo que está en juego no incumbe sólo a 90 familias.



Urriaren 4an, larunbata eta igandeko jai handiaren bezperan, idazkari nagusiaren-alboko Amaia Muñoak ELAK 100.000 enplegu berde sortzeko martxan jarri duen kanpaina aurkeztuko du 18:30tan. Bestalde, ingurumen arduradun Ainhara Plazaolak *Garraioa, klima eta justizia soziala: zein aterabide?* izeneko hitzaldian hartuko du parte urriaren 5ean, 11:00tatik aurrera.

Bizi! mugimenduko kide Xabier Harlouxetek ekimen honen garrantzia azpimarratzen du. "Iaz Baionan bizitako oso garrantzitsua den gauza bat

erakutsi zigun: posible da mundu hobe bat eraikitzen lagunduko digun eredu garatzea. Planeta bat eta bakarra da, eta bertan bizitzea bideragarri egiten ez badugu jai daukagu. Gure inguruan hamaika egitasmo daude klima aldaketa molde eraginkorren borrokatzen dutenak. Horiek guztiak ezagutaraztea, zabaltzea eta biderkatzea da gure xedea. Han eta hemen sortzen diren ekimenak dira, eta horiek batuz eta zabalduz herritarrei bestelako mundu bat eraikitzeko tresnak ematen ari gara".

Begi bistakoa da 2013an Baionan antolatzen Alternatiben Herrixka-ren arrakasta. Horren lekuko ekimenak azken hilabete hauetan izan duen zabalkundea, ez bakarrik Ipar Euskal Herrian, Frantziako Estatuko hainbat bazterretan ere. "Alternatiba txikiak zabaltzen joango dira, handitzen, batez ere beharrak handitzen ari diren honetan administrazioek geroz eta gutxiago egiten dutenean. Erroka da sortzen diren alternatiba desberdin isolatu horiek saretzea. Sare alternatibo, koherente, solidario bat josten joatea da kontua. Iragan urtean izandako arrakastak indarra eman zigun aurrera jarraitzeko eta orain arteko bideari eusteko. Horren lekuko beste hainbat herrietan sortu diren Alternatiben Herrixka ezberdinak. Horregatik aurten

hitzordua Zokoan izango da, eta datozen urteetan ekimen hau martxan dagoen beste herriren batean".

"Alternatiben Herrixka-k hedatzen ari dira -gaineratzen du Harlouxetek-, eta horrek indarra eta baikortasuna ematen digu kapitalismoarekiko sare alternatiboa ehuntzen jarraitzeko. Gauza asko gaizki doaz, bai, baina badabil zerbait mugitzen behetik, ari dira gauzak sortzen. Eta itxaropen handiena: herri hau izango da guk egiten duguna. Horren lekuko dinamika honek orain arte izan duen arrakasta eta zabalkundea".

Beste behin bestelako mundu hobe bat ekintza bidez posible dela frogatu ahal izango dute Zokoara hurbilduko diren lagunek.

**Bizi! ha organizado 'Alternatiba Zokoa' para el 5 de octubre en el barrio Zokoa de Ziburu, Lapurdi. El objetivo es mostrar las diferentes alternativas que se están construyendo para demostrar que otro mundo es posible y lo estamos haciendo ya.**



# TTIP: MUGAGABEKO BOTEREA MULTINAZIONALENTZAT



**D**uela urtebete hasi ziren Europar Batasuna (EB) eta Ameriketako Estatu Batuak (AEB) Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena (ingelesez TTIP) negoziatzen. Sekretupean prestatzen ari diren hitzarmen hau ez da ohiko merkataritza akordio bat: helburua ez da bakarrik muga-zergak ezabatu eta merkatuak irekitzea. Benetako xede nagusia *oztopo* diren araudiak kentzea da, alegia, merkataritza libererako eta inbertsioentzako eragozpen diren eta Atlantikoaz gaindiko fluxua zailtzen duten arau sozial eta ingurumenekoak ezabatzea.

Esaterako, horien artean daude osasunari eta elikagaien segurtasunari buruzko arauak (transgenikoen murrizpena), arau laboralak (hitzarmen kolektiboak kasu), gai kimiko toxikoen erabilpenari buruzkoak (adibidez, REACH

gai kimikoak kudeatzeko arau-marko europarra), datu-babeseko legeak, etab. Denbora luzean metatuz joan den arau eta eskubide multzo zabal hori ezabatu egin nahi dute merkataritza librearen izenean.

TTIPen baitan negoziatzen ari diren puntuen artean kezkarik handienetarikoa Inbertitzaile eta Estatuaren arteko Gatazkak Ebazteko Prozedura da (ingelesez ISDS). Honen bitartez auzitegi pribatuak sortuko lirake, ohiko justizia-rekin zerikusirik gabeak; hauengana jo lezakete inbertitzaile atzerritarrek (edo zein enpresa multinazionalak) estatu baten aurka, honek erabakitako politika publikoren batek ustez etekinak galtzea eraginez gero.

Honelako prozedurak dagoeneko merkataritza hitzarmen ugarian jaso dira, eta berehala hasi dira multinazionalak hori baliatzen osasuna, ingurumena edo lan-eskubideak babesteko arauak ekiteko. Dagoeneko 500dik gora auzi-eske sartu dira 95 estaturen aurka. Ezaguna da, esaterako, Philip Morris tabakalerak australiar gobernuari eskatu dizkion milaka milioi dolarrek, tabako paketeetan publizitatea galazten duen arauak galerak eragin omen baitizkio. Beste salatzaile bat Veolia enpresa frantsesa da: Egiptoko gobernuaren aurka auzi-eskea sartu zuen, beste gauzen artean, gutxieneko soldata bat ezartzean etekin txikiagoak izatea ekarri zuelako.

Prozedura hau demokraziaren aurkako benetako atentatua da, eta kezka handia sortu du hainbat talde eta erakunderengan; hauek gero eta kritika ozenagoa egiten diote. Egoera honek

behartu egin du Europar Batzordea ISDSren inguruko negoziazioa etetera eta beraren inguruko kontsulta publiko bat egitera. Uztailean amaitu zen kontsultarako epea, eta 150.000 bat erantzun jaso ziren; oraindik ez dituzte aztertu.

Baina kontsultak izan duen oihartzuna gorabehera, eta espero daitekeen arren erantzun asko eta asko kritikoak izango direla, ez dirudi negoziatzen ari diren aldeek ISDS baztertzeko asmoa dutenik. Agian aurpegia garbitu nahi izan dute prozesuaren sekretupeko izaerak eragin dituen kritikak isilarazteko eta bide batez azaleko aldaketaren bat egiteko.

ISDSarekin batera TTIP proiektu politikoaren beste puntu nagusietako bat araugintza-lankidetzak da. AEBetako gobernuaren bultzadaz, Europar Batzordeak proposatu du

Araugintza-lankidetzako Kontseilu bat eratzea, EB eta AEBetako erakunde araugile nagusietako arduradunek osatua; kontseilu honen eginkizuna litzateke aplikazio orokorreko arau guztiak kontrolatzea, indarrean daudenak zein egitekotan direnak, nazioarteko merkataritzan eragin handia izan dezaketen heinean. Horretarako kontseiluak alde interesatuen iritzia aintzat hartuko du (batik bat enpresen lobbyenak). Praktikan enpresei aukera emango litzaieke indarrean dauden arauak erasotzeko, baina baita egiteko prozesuan dauden baldintzatze ere, beren salerosketei kalte egin edo oztopoa jar diezaiokeen edozer paretik kentzearen.

Non geratzen da parlamentuen burujabetza? Non geratzen da demo-

krazia? Asmoa agerian dago: arauak ezin dute *negozioa* oztopatu, eta horretarako, batetik, auzitegi pribatuak sortzen dira haiek aplikatzen dituzten gobernuak zigortzeko; bestetik, aipatutako kontseilu batek legediak eta lege-gaiak gainbegiratu dituzte batzuren *negozioa* inola ere mugatu ez dadin.

Sekulako erronka dugu hau. Atlantikoaren bi aldeetako elite ekonomikoek urteak daramate klaseko proiektu politiko hau taxutzen, helburu jakin batekin: oraindik ere bizirik dirauten konkista sozialak ezabatzea eta erabateko desarautzea lortzea, jokaleku berrian korporazio handiek aise joka dezaten.

Negoizazioak sekretupean eginagatik eta talde enpresariak lobby lan izugarria egiten ari diren arren, propaganda ofizialaren aurka ere erresistentzia areagotzen ari da. Gero eta erakunde eta mugimendu gehiago gaude TTIP hitzarmenaren aurka, European nahiz AEBetan, gero eta jende gehiago konturatzen ari baita bere bizimoduan zer nolako eragina izango lukeen.

**Europar gizarte zibileko antolokunde eta mugimenduek osatutako aliantza batek TTIParen aurkako ekintza eguna deitu du datozen egunetarako.** Euskal Herrian ere parte hartuko dugu borroka horretan, jokoan asko izanik oraindik garaiz baikabiltza. TTIP geldiaraziko dugu, demokrazia berreskuratu, eta multinazionalen botereari alto eman. Pertsonak eta planeta etekin korporatiboen ginetik gaude.

**Laura Gonzalez de Txabari, ELAko nazioarteko arduraduna**

## LABURREAN / BREVES

### ● El Gobierno español continúa con la destrucción de empleo y la pérdida del poder adquisitivo

ELA participó el 25 de septiembre en la reunión de la Mesa General de las Administraciones Públicas del Estado, celebrada en Madrid. Igor Eizagirre, responsable de ELA-Gizalan, destaca que la reunión fue decepcionante, "una muestra más de la inutilidad del diálogo social y la necesidad de la movilización. El gobierno pretende dar apariencia de negociación a lo que son medidas unilaterales de destrucción de empleo y recorte continuo de derechos laborales y sociales".

### ● Kutxabanken pribatizazioaren kontrako manifestazioa Donostian

Kutxako administrazio kontseilua irailaren 25ean bildu zen; bileraren helburua fundazio bankarioaren patronatoa izendatzea izan zen. Azkenean, EAJ, PSE, PP eta CCOOren bozekin Kutxa banku-fundazio bihurtzea erabaki zen. ELAren ustez, erabaki horrek kontrol publiko eta soziala ezabatzen ditu, Vital eta BBKn gertatu den bezala. Administrazio Kontseiluaren bileraren aurretik protesta ekintza egin zen, Pribatizazioaren Aurkako Plataformak deituta. Deitzaileek euskal Aurrezki-Kutxak likidatzeko eta pribatizatze arrazoi sozial, ekonomiko edo politikorik ez dagoela salatu zuten. Gainera, orain arte egindako pribatizazio bidean atzera egin behar dela nabarmendu zuten.

### ● Contra la política de criminalización de la población extranjera

ELA se ha unido a la denuncia pública efectuada por SOS Racismo de Araba contra Javier Maroto y Javier de Andrés, alcalde de Vitoria y diputado general de Araba, respectivamente. De este modo ELA participó en la concentración organizada por diferentes colectivos sociales el 25 de septiembre contra la política de criminalización de la población extranjera.

Nuestro sindicato quiere repudiar las acusaciones vertidas contra SOS Racismo, y denuncia la actitud de aquellos dirigentes políticos que ponen en el punto de mira a una parte de la población perceptora de las ayudas sociales, en este caso, la Renta de Garantía de Ingresos. Además de manifestar nuestra solidaridad, ELA quiere denunciar la criminalización y la estigmatización a la que se somete a una parte de la población extranjera señalada por los citados mandatarios.

### ● Hauteskunde sindikalen epealdi-trinkoak aurrera darrai

Iragan astean ere hainbat izan ziren hauteskunde sindikalen epealdi-trinkoaren baitan egin ziren bozketak. ELAko hauteskunde arduradun Txema Laisekak azpimarratzen duenez prozesua ondo doa gure sindikatuarentzat. "Iragan astean egin ziren bozketak guztiak Enpresa Txiki Ertainen baitan kokatu behar dira. Komiteko enpresak urritik aurrera bozkatzeko dira nagusiki. Dena den, iragan astean delegatu gutxi aukeratu ziren arren, pozik egoteko moduan gaude, alde zuretik egin genituen iragarpenak betetzen ari baitira".

### ● Osakidetzak murrizketekin jarraitzen du

Osakidetzako zuzendaritzak murrizketekin jarraitzen du: oraingoan call-center korporatiboaren lana bukatutzat eman du. Call-center korporatiboaren itxierak agerian uzten du berau pribatizatze asmoa duela eta, era honetan, gizartearen osasun datuak enpresa pribatuen esku utziko dituela.

### ● ELAk bere babes eta laguntza ekonomikoa eskaini dio Ziburuko Kaskarotenea Ikastolari

ELAko ordezkari bat –Adolfo Muñoz idazkari nagusia, Xabi Irastorza irakaskuntza arduraduna eta Leire Txakartegi euskara arduraduna buru– Ziburun izan zen irailaren 24ean, Kaskarotenea Ikastolari sindikatuaren babes eta laguntza osoa eskaintzeko. ELAk bere elkartasuna adierazi nahi die Kaskarotenea Ikastolako familia eta langileei. Gainera, ikastolarentzako zein bertan ikasten duten ikasleentzako alternatiba egoki bat aurkitzea exijitzen dio Herriko Etxeari.

